

OTOITZ-BIDEA

Gure fraide batek (Aztiri) galdetu zion behin gazte bati: —Otoitz asko egiten al da zuen etxean? Eta hark erantzun: —Sobra gutxi, jauna. Gure gizartean eta gure mendean otoitza behe-raka joan dela, edozeinek ikus dezake. Badirudi fedeak funtsik ez balu bezala gabiltzala.

Baina zer da eta, gutxien uste genuenean, Sekularismoak jotako gure Sartalde honetan, horra non bapatean otoitzerako grina eta gosea pizten den. Badira gaur makina bat talde, otoitz eta meditaziorako grina hori sentitzen dutenak; eta maiz sarri Sortaldeko erlijioetara jotzen dute, haiek darabilzkiten metodo eta praktikak etxeratu nahiz.

Hori ikusiz, Fedearen Dotrinarako Kongregazioak gutun bat argitara zuen joan den urteko urrian gai honi buruz. Ez dago bat ere gaizki —esaten du— on dena nondiknahi hartu eta etxera ekartzea; baina erizpide seguru batzuk ere behar dira bide zuzenetik ez saihesteko. Aurrenik behar da jakin zer moduzkoa den kristauren otoitza, eta hori jakinik, ikusiko da ea beste nonbaitetik hartutako osagarri batzuekin aberats ote daitekeen.

Ondoko lerroetan gutun trinko honen berri laburra eskaintzen dugu.

BIBLIA ETA OTOITZA

Biblia saildian ikusten dugu nola edo zer moduz egin behar duen otoitz Jain-



Kristau otoitzaren edukia Fedek mugatzen du. Otoitza Elizaren barnean behar da egin.

koaren Agerkundera hartu duenak. Adibidez, Testamentu Zaharreko Salmuetan ageri da nola egiten zuen otoitz Israelgo herriak: Jainkoagandik hartutako mesede handien oroitzapen eginez, Jainkoa goratuz, Hari eskerrak emanez, eskatuz (barkamen eskatuz, laguntza eskatuz etab.).

Gero Testamentu Berrian Jainkoak bere burubide eta asmoen agerpen osoa egin digu Jesukristo baitan. Agerkundera eta otoitzak zer-ikusit estua dute elkarrekin. Kristau otoitzaren edukia Fedek muga-

tzen eta baldintzatzen du. Otoitza Elizaren barnean eta gidaritzapean behar da egin.

DESBIDERAPENAK

Baina oso goiz azaltzen dira desbiderapen edo saihebidetako ere. Oinarri-oinarrizkoak bi hauek: Gnostikoak eta Mesalianoak. Haiek —Gnostikoak—, izpirituaren alde daudelako ait-zakiaz, materiazko den oro arbuatzen dute, eta Jainko-Semearen Gizakundera ez dute aintzat hartzen. Fedearen beharrik ez dute aitortzen. Bigarren tokian aipatu ditugunok, berriz, Jainkoaren esperientzia dutela diote eta horrekin aski dutela; jai du, beraz, haien zat Elizak eta Elizak irakasten duen guztiak.

Bi desbiderapen edo tentazio hauek bizirik iraun dute mendez-mende eta orain ere hor dira. Hemen azpian zera dago: Jainko eta kreaturaren artean dagoen leizea ez dela aitortzen eta graziari soilki zor zaiona psikologiatik espero dela.

JESUSEN JANARIA

Bide zuzenetik abiatzea beharrezkoa da, bada. Horretarako har ditzagun gidari Jesusen hitzok: "Hau dut Nik janari: bidali nauen Haren nahia egitea" (Jo 4, 34). Egiatzko otoitzak lagun hurkoarengana garamatza beti. Jainkoaren bi agindu nagusiak Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea baitira (Mt 22, 37-39).

Jainkoa eta gizonaren arteko mugak ez dira, bada, ezabatzen, gizonak ez du bere nortasuna galtzen, gizona ez da Jainko bihurtzen. Egia da Jainkoak semetzat hartzen gaituela eta Jainkoari "Abba" izena eman diezaioketula. Era horretara gizonaren nahikariak bete egin dira; gure nortasuna galdu gabe, ordea. Gizonaren jainkotzeaz mintzo dira, bai Elizako Guraso batzuk, eta hala da, baina hori ere behar diren zehaztasunekin ulertu beharra dago.


Erlijiorik gehienek Jainkoarekin batasun izatera heltzeko norabidea erakutsi nahi digute. Egoki dena hartu ahal izango da, baina beti kristau otoitzaren izaera eta eskakizunak kontutan hartuz. Eta hauen artean, maisu aditu baten laguntza izatea. Honen zeregina ez da arriskueta abisu ematea xoilki, aita baten gisa otoitz-bizitzeari sarraraztea baizik.

Jainkoaren bilakuntzak badu, baita ere, aszesi eta garbitzapen-beharra, Ebanjelioak dioenaren arabera: "Zorionekoak bihotzez garbi direnak; hauek ikusiko dute eta, Jainkoa" (Mt 5,8).

GIZONAREN GRINAK

Gizonaren grinak —hots, pasioak— ez dira berez txarrak; txarra da, edo izan daiteke, horien xedea edo jomuga, norberekoikeria baldin badute helmuga. Zer egin orduan grinak aspian har ez gaitzaten? Zaharrek "apatheia" eta San Inazio Loiolakoak "indiferentzia" deitzen duen hori lortu, hau da, egin gaitzela geure buruen jabe, ordua datorrenean behar dena libreki hautatzeko. Eta hori ez da lortzen buru-ukatze eta hildura gabe.

Esan ohi da, baita ere,



Utz dezagun Jainkoaren eskuetan gu bere amodioaren partaide nola egin erabakitzea. Ez da inork teknika edo metodo baten bidez eskura dezakeen gauza.

behar dela norbere burua hustu, Jainkoak bete dezan; baina hori ere behar da ongi ulertu. Jainkoak nahi du norberekoikeriari beti uko egin dakion; baina gauzei ez beti. Norbere baitan kiribildurik egotean: hor da arriskua. Erabateko amodio osora ezin daiteke iritsi gizona, Jesus Jainkoaren Seme gizon eginaz baztertzuz.

MISTIKA

Jainkoak hala nahi baldin badu, otoitz egiten duen kristaua hel daiteke batasun-esperientzia guztiz aparta izatera. Hori da Mistika deitzen duguna. Jainkoaren dohaina da berau. Labur esanik: kristauaren Jainkoagana hurbiltze-modua ez da inolako teknika eta praktike-tan oinarritzen.

ETENGABEKO OTOITZA

Gorputzaren jarrerek, arnas hartze-moduek etab. lagun dezaketek agian, baina bai desbidera ere. Eta ariketa fisiko batzuen ondorioak ez dira Izpiritu Sainduaren kontsolamen balira bezala hartu behar. Eskizofrenia-suerte batean erortzea litzaiteke gauza horiek esperientzia mistikotzat jotzea. Hesitak, jakina denez, eten-

gabeko otoitzaren bila zebiltzan eta otoitz-bide bat arnasa eta jakulatorien konbinaketa batez eratua irakasten zuten. Agian nora gabe aurkitzen den gaurko gizonari lagun egin diezaiokete bide honek, baina jakin dezagun etengabeke otoitza ez dela nahi-ta-ez moztu zereginetan aritzeagatik edo lagun hurkoaren aldeko lanetan ibiltzeagatik.

*** **

Eta horra zein den esan dugun guztietatik atera behar den irakaspena: fededun guztiek aurkitu ahal izango dute berei dagokien otoitz egiteko modu propioa, baina bide guzti horiek Jesukristorengan biltzen dira. Bera dugu Aitarenganako bidea. Eta kontuan har dezagun honako hau: otoitzaz seriozki arduratzen den ororentzat helduko direla lehorte edo kamuts-uneak, Jainkoa batere sentitzen ez dutela iruditzen zaien uneak. Eta ez bezate aringenti pentsa Donibane Gurutzekoak deskribatzen duen Gau Iluna dela hura. Hain zuzen, une hauetan behar da sekula baino gehiago otoitzean permatu, horrela Jainkoari geure leialtasuna erakusten diogularik. Orduantxe ageri baita zeren bila dabilen otoitz egiten ari dena.

Jainkoaren amodioa, kristau kontenplazioaren helburu bakarra, ez da inork teknika edo metodo baten bidez eskura dezakeen gauza. Eta gogora dezagun Kristok ere ataka mehar hori igaro zuela, hots, Aitaren eskutik utzia egotea ezagutu zuela (Ikus Mk 15, 34).

Dena labur bilduz: utz dezagun Jainkoaren eskuetan gu bere amodioaren partaide nola egin erabakitzea.

Fr. L. Villasante